

|||uztarrria|||

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2009ko urria |||110. zenbakia |||



PRESOEN LAGUN ETA IRAKASLE

**Marikruz eta Arantxa Azkue
eta Maria Jesus Arregi
azpeitiarrak, Martuteneko
bizipenak ahotan 20**



skunkfunk
people do funk

amerillolimon

FREEMAN PORTER

ZARZALIK

ZEN SPIRIT



Paulo VI 19 Azpeitia - Tlf. 943 81 10 53

www.sorgindenda.com



Kimubat
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

ANA MARI TABERNA

- > Asteburuko menua 25 euro (edariak, kafea... barne)
- > Urritik aurrera, enkarguz, babarrun janak
- > Kuadrilentzat menu bereziak

Kale Handi, 1 **URRESTILLA** Tel. 943 15 75 91



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarrria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 110.a (2009ko urria)
Urtea. XI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 635 75 76 04 / maite@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Webgunea. www.uztarrria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2009KO URRIKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Iraileko aldapa gogorra egin al zaizu? **13**

mamia

Joxe Mari Sarasola. Diagnosi eta erremedio alternatiboak **04**
Klik! 'Azpeitiko Sokamutilak' DVD-a **16**
Ikastolen kooperatiba. Ikasberrik urrian egingo du batzarra **24**

jakiteko

Gurutze Eizmendi. Oholtza gainera igo eta jaisteko asmorik ez **34**
Elisabet Garmendia. Perun egin ditu erizain praktikak **37**


Ba al dakizu urrestil dar batek apustua irabazi duela ibaieder urtegiari buelta oinez ordubete azpitik emanda? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrarian




943 15 03 58

Herri aldizkariaren gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide gara dagoeneko Uztarrarian; eskerrik asko denek.

30 euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

JOXE MARI SARASOLA

masaje-emaile terapeuta

“Dena izaten da zerbaitengatik”

Masajeekin hasi eta pultsologiara iritsi. Min fisikoen jatorria emozio eta sentipenetan bilatu eta erremedioa ematen saiatzen da. Beste aukera bat. 📧📞 Nekane Zinkunegi

Hiru urte daramatza ‘Kame masaiak’-en lanean eta, horrez gain, Elorrion kontsulta bat eta Zumaian parafarmazia ditu. Bilbon gauzatu zituen masajearekin loturiko ikasketak eta pultsologian oinarrituriko beste hainbat adar, berriz, Altsasun eta Hondarribian. Txinako estiloan apaindurik duen kontsultan hartu gaitu, bere lanbidearen nondik norakoak azaltzeko.

Nolatan lan honetan?

Batetik, esoterismoaren mundu hau gustatzen zitzaidalako; baina gehienbat, arazo pertsonal bat izan nuelako eta honi buelta emateko teknika bat aholkatu zidatelako. Emaitza onak eman zituen teknika bat, hain zuzen, eta esperientzi horretan oinarrituz, neuk

igarotakoa jendeak jasan ez dezan hasi nintzen lan honetan.

Familian baduzu halako ohi-turarik?

Hau nire kontua da, baina denborarekin jakin ahal izan dudanez, nire aitak belarrekin fede handia zuen eta arbasoek ere bazuten elementuokin lotura dezentea.

Zertan hasi zinen lehen lehenik?

Hasieran masaje munduari heldu nion. Geroago, irakasle batek kontaktu bat eman zidan, eta harekin ikasi nituen pultsologia eta honetan oinarrituriko gainerako terapiak. Bestalde, hango baten bitartez Hondarribiko andre bat ezagutu nuen, zeinak osteopatia zelularren teknika erakutsi zidan. Hala ere, egunerokotasu-

DATUAK

||| **Jaio.** 1981eko ekainaren 18an. ||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Masaje-emaile terapeuta.

nean, gauzak ikasten ari naizela esango nuke.

Zein da medikuntza alternatibo honen funtsa?

Gizakiok emozionalki izaten ditugun gorabeherak, gorputzean aldatzerio fisikoak eragiten dituzte. Horiei konponbidea modu naturalean ematea dugu helburu. Beti ere, gorputzera kanpotik substantziarik sartu gabe edo, sartzetan, naturalak soilik sartuz. Gorputzean izan ditzakegun minei, gorputzak berak aurre egin diezaien laguntzea, puntu zehatz horietan pilatutako energia mugiarazi eta oreka lortzen saiatuz.

Eta nola erantzuten du jendeak honen aurrean?

Oro har, ongi; ziurrenik denetarik iritziak eta jarrerak egongo dira, baina... Ni neure onena ematen ahalegintzen naiz, zenbait balioko dio, beste zenbaiti, denbora galtzea irudituko zaio.

Baina jendeak badu konfiantza, ala modan jartzen ari direlako jotzen du honelako metodoetara?

Ez, uste dut jendea konturatzen ari dela ezintasun edo min fisikoak ez direla hain zuzen fisikora soilik mugatzen. Emozioekin, bel-durrekin, traumekin... loturiko ondorioak izan daitezkeela baizik, dena dela zerbaitengatik. Eta honen aurrean, jendea prest dago metodo alternatiboen bidez



Joxe Mari Sarasola, Azpeitiko kontsultan. Hiru urte daramatza bertan lanean.

sentipen horiek askatzeko. Hala ere, zenbait kasutan, badago beldur moduko zerbait.

Beharrezkoa al da metodo hauen efektibotasunean konfiantza izatea, emaitzak lortzeko?

Beno, nik hona etortzen den orori zer ikusten diodan garbi esaten diot, gustatu ala ez. Zenbaiti, oso ezerosoa gerta dakioke egiazko errealitatearen berri izatea, eta ez du dituen arazo horiek sorturiko horma apurtu nahiko. Jendea zenbat eta konprometituago etorri hona, hainbat eta gehiago lagun dakiokeet nik. Ez da sinesmen kontua, borondate kontua baizik.

Zer dakar horma apurtzeko gogorik gabe jokatzeko?

Ba, hortik datoz gaixotasunak. Barruan tristura gordetzen joateak, biriketan mantxak sortzea eragin dezake, hotzeria errazago harrrapatzea... fisikoa kaltetzea, azken finean.

Oro har zertan aritzen zara?

Denetik egiten dut, bost eguneko haur batetik hasi eta 92 urte dituen pertsona batera artean dagoen jendea tratatu dut, ez dago besteen gaineratik gailentzen den arazorik. Besoko edo bizkarreko mina izan daiteke, urdaileko arazoak, lo egin ezina, estresa, urduritasuna, depresioa...

Azaldu zer egiten duzun zehazki hona etortzen den jendearekin.

Pultsologiaz baliatuz, pultsua nola duen neurtzen diot pertsona bakoitzari; hala, pultsuaren alterazioaren arabera, hona etorrarazi duen arazoaren jatorria gorputzeko zein partetan dagoen jakin dezaket. Eta, aldi berean, pultsuak berak adierazten dit arazo hori konpontzeko zein metodo erabili beharko nukeen: bati akupunkturak mesede egingo dio, beste batentzat fitoterapia –sendabelarrena– eraginkorragoa izango da...

Zugara jotzen duen jendeak

lehen aukeratzat zaitu, ala batean eta bestean ibili ostean konponbide bila etortzen zaizkizu?

Hor ere denetik dago, badira ezin asmatuan ibili eta hemen amaitu dutenak, eta baita hemengoarekin konforme ez daudelako beste norabait jotzen dutenak ere.

Zer eskaintzen dizu lan honek?

Fisikoaren atzean beti psikologia dagoela ikasi dut eta pertsonekin

lan egiteak, neuri pertsonalki, hazten lagundu eta bete egiten nauela esango nuke. Bada hitz egitera bakarrik etortzen den jendea ere, bere inguruan inork ez diola entzuten uste eta barrua husteko beharra duen jendea.

Ez didate inoiz, inor elkarriketatze oinutsik jaritzeko eskatu. Zertara dator hori?

Elektrizitateari dagokionean ‘tierra egitea’ aipatzen dugunaren gisakoa da. Nik pertsonen gorputzean alteraturik dagoen energia orekatzea dut xede eta hona datozenek nigan husten duten energia hori, lurrarekin zuzeneko kontaktuan egonez deskarga dezaket neronek. Uste ez badugu ere, eguna tresna elektrikoekin lanean igarotzen duen edonori, mesede egingo lioke etxera itzultzean hanka-hutsik ibiltzeak, gorputzeko elektrizitatea kanporatzeko.*

||| Elkarriketa osoa uztarría.com-en

“Gorabehera emozionalak alterazio fisikoak eragiten dituzte”

“Etortzen den orori zer ikusten diodan esaten diot, gustatu ala ez”

Azukrea ala sakarina?

Hau da lagun batek egin zidan galdera opor hauetan. Baina ez pentsa kafea hartzerakoan berau goxatzeko gustuko zer nuen galdetu nahi zidanik. Galderaren mamia gizartea eraldatzerakoan oinarritik hasi (azukrea) edo dagoena moldatzen saiatu (sakarina) behar dugun zen. Egia esan historian zehar ere galdera hori askotan egin izan dute beraren protagonistek eta adibide ugari daude, bi norabidetan beti ere.

Horrela, 1917ko iraultza aurrera eraman zutenek Errusian, komunistek hain zuzen ere, ez zuten nahi gizarte burgesa eraldatzea edo moldatzea, baizik eta gizarte berri bat eraikitzea, oinarri berriak ezarriz. Aldiz, Espainian, Franco diktadorea hildakoan (1975) bere erregimena moldatzea erabaki zen, zeuden erakundeak eraldatuz eta estatuburua, Juan Carlos erregea, boterean mantenduz. Aldaketa noski eman zela, baina ez zen benetako haustura izan.

Denboran gerturago etorri, liberalismoak bultzatutako globalizazioaren aurrean sortutako aurkako mugimenduek gizarte eta ekonomia eredu desberdin bat proposatu dute. Baina oraindik goizegi da askoren aburuz eredu berri horren atzean zer dagoen jakiteko. Benetako eraldaketa edo eredu liberalaren moldaketa?

GKE-ak eta solidaritatea

Gizakiok beti sentitu izan dugu gure elkartasuna adierazteko beharra, baina ez hainbeste gizartea eraldatzeko. Aurrekoak elkartasun mota desberdinak abian jartzera eraman gaitu. Hasi Erdi Aroan Elizak txiroentzat erakitako erietxe eta babes-etxeetatik eta gaur egungo GKE-etara iritsi arte. Jende askori beharbada harridura sortuko dion arren, munduko GKE (Gobernu Kanpoko Erakunde) zaharrena Gurutze Gorria da, jada 1863an sorturikoa. Gaur egun milioika GKE bila ditzakegu munduan zehar eta milioiak eta milioiak ematen ditu jendeak bere boron-



markel mendizabal

Beti sentitu dugu gure elkartasuna adierazteko beharra, baina ez hainbeste gizartea eraldatzeko

datez mundu guztian zehar gure gizartean guk adina zorte ez dutenei laguntzeko.

GKE-ek egiten duten lana oso goragarria izanik ere, hasierako galderari eutsi nahi nioke berriro. Nahikoa da GKE-ei laguntza eman eta gure kontzientzia lasaitzea edo, aldiz, gaur egungo munduko egoera ikusirik beharrezkoa da beste eragiteko modu batzuk bultzatzea? Ez da galdera erraza egiteko, eta erantzuna oraindik zailagoa da ziurrenik. Irakurri berri duzuenak behintzat zer pentsarazi eman badizue nire helburua betetzat ematen dut, niri nire lagunak egin zidanean gertatu zitzaidan bezala. Beraz, hurrengo batean, ondorengo galdera entzundakoan, ea zer datorkizuen burura. Azukrea ala sakarina?*



Xanti.R

ikastaro eta akademien gida

ikasturte berrian eskaintza zabala



25 urte ikastaroak eskaintzen

umeak
gazteak
helduak

Pablo VI, 6 - Tel. 943 81 53 19



25 urteko esperientzia

CAMBRIDGEKO azterketak
(KET, PET, FIRST CERTIFICATE ADVANCED, PROFICIENCY)
AURTEN ERE GURE IKASLEEN
%90ak AZTERKETAK GAINDITU DITU

Pablo VI, 6 - Tel. 943 81 53 19



- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Arretxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

SANATANA DHARMA



TXAITANYA YOGA ESKOLA

Enparan kalea 10 - 3. eskubi,
Azpeitia.
Telf: 666 095 648

Oporrak eta gero...

Sindromez beteriko gizartean bizi gara: 30 urtetako sindromea, 40koa, erditze ondorengoa... eta oporren ondorengoa. Sindrome hitza erabiltzeak, indar gehiago ematen dio gertaerari eta momentuko sentipen bat gaixotasun bat baillitza bizi dezakegu. Abuztua pasata, asko eta asko oporren ondorengo sindrome hori pairatzen ari gara seguruenik, pasatuko denaren esperantzarekin, dena pasatzen baita, ala ez? Dena pasatzen da edo ezer ez da pasatzen, kokka ederra batetik bestera.

Eta, noski, testuinguru sozioekonomiko honetan ezin esan ozenki triste gaudela lanera itzuli ahal izan dugunok, ondoan hainbeste jende lanik gabe geratu dela ikusita. Krudela baina egia: lana dugunok, momentuz, konformatu eta zoriontsu garena eman behar, lana dugulako. Oporrek egunerokotasunetik aldegeteko aukera aproposa eman ohi dute, nahiz eta askotan oporrak gure egunerokotasunaren jakitun egiten gaituen. Bidaia lagun batek esan zidan moduan: "urrun gaudenean koraza kentzen dugu, eta garen moduan azaltzen gara munduaren aurrean; bizitza errealeko egunerokotasunean, aldiz, dena konplikatzen dugu". Eta hemendik dator nire opor ondorengo lehen erreflexioa, bikote harremanei zuzendurikoa. Ezkongabe eta dibortziatuz beteriko bidaia batean egon naiz, eta Azpeitiko bikoteei erreparatu diet. Herri guztietan bezalaxe gurean ere gauzak aldatuz badoaz ere, oraindik hiri handietako dinamiketarik urrun gaude, onerako eta txarrerako. Dibortzioa bizi-lege moduan bizi zuten nire bidaia lagun askok, eta gure harri-durarako gehienek, bikote berria izanik, etxe ezberdinetan bizitzea erabaki zuten. Praxis ez-ohikoa gurean.

Bigarren burutazioa, bidaietako mito in-gurukoa da. Horietako bat nazionalismoa bidaiatuz sendatzen denarena da. Hau entzuten dudak bakoitzean izugarritzko barregurea ematen dit. Egia da, gure gatazka eta gure



||||||| Eider Alkorta |||||

||| Abuztua pasata, asko eta asko oporren ondorengo sindrome hori pairatzen ari gara seguruenik

zilborraren arazoak erlatibizatu ditzakegula behin muga geografikoak gainditurik. Baina bestetik, nazionalismoaren gaixotasunetik bidaiatzeko bidaia sendatu ez diren asko ezagutu ditut. Afrikaren hegoaldean bertako umeen kantu batzuk entzuteko aukera izan genuen eta geuk ere zerbait abestu behar, eta Mikel Laboaren *Txoriak Txori* abestiari heldu genion. Katalandarrek havaneres bat abestu zuten eta, madrildarrei begirada zuzentzean, zerbait abesteko eskatuz, nazionalistak ez zirenez horrelako abestirik ez zutela esan zuten, kantu emanaldia amaitutzat emanaz. Estatua izatea baino gauza hobirik ez da, bakoitzak bere burua ez nazionalistatzat jotzeko.

Gero arte

Hirugarren anekdota, Yuri japoniarrek desertuan esanikoa: "ez esan agur, gero arte baizik, itzuliko zarete eta".

Yurik ere izango zuen oporren ondorengo sindromea, Afrikarako bidaia baten ondorenean bertan geratzea erabaki baitzuten. Ba hori, nire partetik ere, gero arte irakurri nauzuen guztioi. ✪



uztarria.iragarki**labur**rak.com

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...



www.iragarki**labur**rak.com
txintxarri.iragarki**labur**rak.com
otamotz.iragarki**labur**rak.com
soraluze.iragarki**labur**rak.com
elgoibarren.iragarki**labur**rak.com
bidasoamedia.iragarki**labur**rak.com
ukberri.iragarki**labur**rak.com
oarsosaldekohitza.iragarki**labur**rak.com
tolosaldekohitza.iragarki**labur**rak.com

busturialdekohitza.iragarki**labur**rak.com
uro-la-kostakohitza.iragarki**labur**rak.com
irutxulokohitza.iragarki**labur**rak.com
goierrikohitza.iragarki**labur**rak.com
11barri.iragarki**labur**rak.com
baleike.iragarki**labur**rak.com
geugasteiz.iragarki**labur**rak.com
etakitto.iragarki**labur**rak.com

milaka bisita, egunero

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

*Jarri zure
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.


HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Haragi samurra, euskaraz saldua.

Harategira erosketak egitera joan eta poza ematen du eskaintzak euskara hutsean ikusteak. Euskararen normalizazioa lortzeko bidean urrats ona, benetan! **Uztarria**

**BEHERA.** Liburuak eta euskara salgai.

Irailako aldapa gogorra medio, bigarren eskuko liburuak ez ezik euskara bera ere salgai jarri du ikasle honek. Aurrera egin beharrean, atzera... **Uztarria***



Kepa Peñagarikano.

ESANA DAGO

“Lekeitioko torneokoa nire merituz lortutakoa da. Enpresak ez du edozein atzelari ipintzen”

KEPA
PEÑAGARIKANO
pilotaria

“Eskualdeko sareak garrantzitsuak dira garapenerako”

MIREN LARREA
Deustuko
Unibertsitateko
irakaslea

“Berriro jaioko banintz, pilotari helduko nioke berriz, zalantzarik gabe”

TXETXU IRIARTE
erremonte jokalaria ohia



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Lasaiago nago orain

Aupa zuek! Lehenbizi eskerrak Uztarriako kide guztiei nire iritziak plazaratzeko aukera hau eman didatelako. Lehenengo aldia izanik, urduritasuna tarteko, inoiz baino ozenago esango dut: ondo esanak hartu, gaizki esanak barkatu.

Niri hemen idazteko aukera eman didana futbola izan dela kontuan izanik, nola lotu futbola eta Uztarria? Futbola askoren iritzi artea omen, eta artea kultura omen, lotura egina dago beraz.

Kirolean murgiltzeko aukera eman zidatekin gogoratuz idatziko dut nire lehen arti-

kulu hau, zorra kendu asmoz edo. Kiroletako zuzendaritza taldeetako kideez ari naiz, sarri hain ahaztuta izaten ditugun horietaz. Hauen lanik gabe ez genuke herriaren izenpeko kirolik.

Zenbat urte, zenbat lan, zenbat erabaki, zenbat buruhauste... eta sarritan kritikak bakarrik entzuteko, zoritxarrez gutxiegitan gauza onak entzuteko. Aulkiak garbitzen, boltoak saltzen, bidegurutzeak zaintzen, enpresetara diru bila joaten... gehienetan aste-buruetan eta bolondres gainera. Geroz eta berekioagoa den gizarte honetan, besteen-

tzat zein herriarentzat lanean, hori da meritua eta baloreak transmititzea.

Herritarrok hau ez baloratzea bekatu bada, Udalak lan hau ez errekonozitzea publikoki, garaipenak daudenean salbu, onartezina deritzot. Adibide xume bat jartzarren: azken urteetan zenbait kirolari omendu izan dira, kultura arloko zenbait zuzendari ere bai, seguru asko ez merezi zuten denak; baina nik gogotan dudala, eta agian ez nabil ongi, kirol zuzendaritza taldeetako inor ez, eskola kiroleko bolondresekin ahantzi gabe. Kirola egiten laguntzea, herria egiten laguntzea da. ✘



aitor zulaika

IKUSTEKOA



▲ ETXEKO BALKOIAN PATXADA EDERREAN ARBOLA.

Bustinzuriko Errebalean, 21 zenbakiko lehen solairuko balkoian, patxada ederrean ikusi daiteke zuhaitza. Garai batean herriko epailea bizi izan zen etxe horretan, baina azken hogeitahamar urtetan hutsik dago. Abandonatuta. Utzikeria medio, fatxada erortzen ari da, baina arbola honek etxea 'okupatzea' erabaki du. ✎ Ainitze Agirrezabala 📍 Enekoitz Esnaola ✘

IRAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Jesusen Alabak

AGUR. 87 urte irakaskuntzan. Ez dira erraz betetzen. 1922an etorri ziren Jesusen Alabak Azpeitira eta irakaskuntzan lan handia egin dute. Zenbat hurrek eta gutako zenbatek jaso ditugu beraien klaseak? Azpeitia oso herri erlijiosoa izan da, baina urte gutxitan fedea murriztu dela dirudi. Edo agortu dela. Badoaz gure herritik. Lehenik Esklabak, iaz Karitatekoak eta, orain, Jesusen Alabak.



Berriro eskolara

BUELTAN. Oporretan aisialdiaz topera gozatu ondoren, lanera, eskolara edo egunerokora bueltatzeko unea da iraila. Ez da erraza izaten. Aldapa gora ikaragarria, ekonomikoki ere gogorra. Baina, hurrek erakusten digute nola hartu. Indarrez ekiten diote haiek ikasturte berriari.



alex silva



Lan eta lan!

UZTARRIA. Urteak ditu Uztarriak. Euri asko egin du denbora horretan. Beti lan txukuna eginez une zailak gainditu eta aurrera jarraitu du. Beti irabazi du herriaren berotasuna. Aurtengoa ez dela urte txarra izango dirudi. Lanean jarraitzeko ia 2.000 euro gehiago izango ditu aurtan.



ISB txapeldun

IRABAZLE. Martxa hartzen hasi dira saskibaloikoak. Aurrekoa denboraldi polita izan zuten. Ezpainetan ezta jarri ziguten. Ia-ia mailaz igo ziren, baina azkenean ezin izan zuten. Orain hasi dutena denboraldi gogorra aurreikusten da. Baina, indartsu hasi dira Txakartegiren taldekoak. Dagoeneko ekarri digute herriarentzat saskibaloiko Euskal Kopa. Ilusioz jokatzeko dutela dio Xubik, baita lortu ere.✘

INKESTA

irailako aldapa
gogorra egin al
zaizu?

 Ainitze Agirrezabala

**EDURNE
ZUMALAKARREGI**
langilea



"Ez, bi semeak
hazita eta lanean
baitabilta. Haiek
txikiak zirenean,

bai, irailan ikaragarriko
gastuak izaten ziren: eskola
materiala zela, udazken-neguko
arropa... Egia esan, orain ez dut
halako buruhausterik".

IÑAKI MARTINEZ
langilea



"Ez. Aurtengo
udan bidaia
handirik egin ez
dudanez, ez dut

aparteko gasturik izan. Eta,
gustuko lana egiten dudanez,
lanera itzultzea ez zait batere
gogorra egin".

ANTONIO CARMONA
langilea



"Bi alaba txiki
izanda asko
nabaritzen da
poltsikoan. Liburu
berriak erosi behar, baita arropa
ere... Irailako aldapa askoz ere
gogorragoa da urtarrilekoa
baino".

NEREA LOPEZ
langilea



"Aurtengoa inoiz
baino aldapa
handiagoa izan
da, krisia medio.

Bi seme-alaba ditut eta
ikasmaterialaren kontuan geroz
eta gehiago behar dute. Arropa
ere dena erosi behar zaie".*

Gure aztarnaren bila

Datorren urtean, 2010ean, beteko dira 700 urte Gaztelako erregeak gure herriari *Carta Puebla* edo Hiri Izendatze Gutuna eman ziola. Gure kondairaren kate luzean katebegi bat gehiago da, eta logikoa deritzot gogoratzea. Mendeetako urtemuga horien kariatara, hainbat herritan hitzaldi eta ikastarok ari dira antolatzen, gure jatorriaren aztarnak eta kondairak ezagutarazteko, artxibategi lanak sustatzeko...

Zehazki nire jaioterrian, Getarian, aurten betetzen dituzte 800 urte, eta oso lan bikaina eta interesgarria darama aurrera bertako herritar talde batek. Lagungarria izaten ari zaie Nabaralde deritzon historialari taldekoen partaidetza. Artxibategietan, Gaztelako erregeak bere gutunean, hiri izendatzerakoan, berresten edo konfirmatzen duela aurkitu dute; beraz, lehenagotik Nafarroako erregeak emana izango zuen izendapen hori, nahiz eta agiri hori ez den agertzen, orain arte arakatu dituzten ar-




HIGINIO OARTZABAL

txibategietan behintzat. Hitzaldi ziklo baten barruan irailaren 17an, mahai-inguru interesgarria egin zuten Getarian, Erdi Aroaren Historiako katedradun Jose Luis Orellarekin, Jesus Mari Perez arkeologoarekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Roldan Jimenorekin.

Azpeitian Zer? aldizkariko azken atalean, *Munoaundi deskubrituz* izenpeko albistean, Burdin Aroko herri harresituari buruz berri ematen dute, duela 2.500 urte baino gehiago sortutakoa, Azpeitiko eta Azkoitiko mugetan. Aranzadikoek nabarmendu dute aurkikuntzak oso garrantzitsuak direla garai hartako herritarren eguneroko bizitza ulertu eta gure jatorria hobeto ezagutzeko.

"Egiak askeago egiten gaitu", dio esaldiak, eta egia, dena delarik ere, ezagutu behar dugu. Ikaste-ko asko dugu, eta ondo letorke efemeride hori herritarren artean jakinmina piztu eta gai hauetaz interesatzeko baliatuko bagenu.*

galdetzen hasita, san Agustingo areto berriko lanak bukatuta baldin badaude, noizko inaugurazioa?  Uztarrria

Krisia eta Caritas

Aurreko hilabeteetan egin zen gure herriko elizetan, Caritas elkartearen kanpaina berri bat. Urtean zehar Caritasak Elizbarruti osoan antolatutako ohi dituen lau kanpainenetarik hirugarrena. Krisi egoerak gure artean kaltetutakoak gogoan hartzerako gonbidatu gaitu kanpainaren goiburua: 'Krisiaren aurrean... elkartasuna'.

Eskainitako gogoetan, hau diote: "Krisi ekonomikoak kalteak eragiten ari da gure gizarte talde ahulenetan, bai hemen, bai hegoaldeko herrietan. Azken horietan, gainera, modu lazgarrian".

Horren berri eskaintzen dute Caritasak eskainitako datu hauek:

Gure herriko errealtatearen datu zehatzak ez badituzte ere, Elizbarrutiko Caritasen 2008. urteko memoriak dioenez, jende gehiago inguratu da parrokiak ezberdinetako harrera taldeetara. Gipuzkoan, adibidez, 12.969 pertsona ingura-



KEPA SUSPERREGI

tu zen iaz. 2007. urtean baino 3.600 lagun gehiago.

Espainiako Caritasak Parrokietako Herrera Zerbitzuetan egindako lanari buruzko azterketan aipatzen denez, laguntza eske datozenek ezaugarri nagusi hauek dituzte: haur txikiak dituzten familia gazteak (20-40 urte bitartekoak); laguntzarik gabe geratzen ari diren langabetuak (horietako asko lanerako baimena zuten etorkinak); emakumeak (familia bizitzaren ardurei bakarka aurre egiten dietenak); etorkinak. Bakarrik eta etxerik gabe bizi diren gizonak ere (bananduak, dibortziatuak) gero eta gehiago inguratzeko omen dira, langabe geratzen direnean.

Aipatutako azterketa horretan esaten denez, laguntza eskatzen da, nagusiki, janaria, etxebizitza, eta osasun beharrei aurre egiteko. Beste eskakizun batzuk hauek izango lirateke: lan-heziketarako laguntzak, arropa, ordaindu ezinako kredituak, liburuak eta eskolarako materialak.*



andoni salegi



Azpeitiaratzen

Oraindik oporretan nengoelakoan, Uz-tarriako arduradunaren errieta jaso behar izan dut artikulu edo kolaborazio hau idazteko. Berrero ikasturtea planifikatu behar. Asmo berrituak, arazo zaharrak, betikoak...

Udan 'euska' kutsua duen edozer ezabatzeko ahaleginean aritu dira eta dihardute sozialistek, eta ez dakit luzaroan jarraituko duten. Nik horrela bizi izan dut behintzat. Francoren garaian ministro izandako baten biografian horrela agertzen da: *Los gudarís lucharon como leones, una fuerza militar muy brava. Y claro, los militares estaban in-*

dignados... y llevaron al Caudillo un proyecto de ley suprimiendo los fueros. Se dictó esa nefasta ley, que es la que ha ocasionado el herribatasunismo. Sozialistek berdina gertatuko zaielakoan nago. Hau da, baldintzak gogortu, eta ezker abertzalea indartu. Agian eskerrak ere eman beharko. Presoen aldeko Donostiako manifestazioa horren lekuko.

Udaletxean talde politikoek konpondu gabe jarraitzen dute eta, uste ez arren, urtean zehar konturatuko gara nolako kaltea egingo digun horrek. Soreasuko lanak aurrera doazela dirudite. Udan lanean jarraitu izan balute

bezala. San Agustingo aretoa, bere garaian bukatuta eta irekitzeaz, isiltasunean dago, bukatutako zantzurik gabe, eta irekitzeko data finkatu gabe. Badirudi udal agintariak arduratuago daudela Azpeitiko "700. urteurrena" nola ospatu pentsatzearekin, dauden lanak burutzearekin baino. Eta bitartean gabeziak hor dirau, sekula sekulorum.

Ez dirudi ikasturte berriak alde handirik izango duenik aurrekoarekin alderatuz. Hori bai, eskaintza ugartzen ari da. Kirol Patronatuak gimnasia abdominal hipopresiboan aritzeko ikastaro berria eskaini du.*



|||||||joxin iturriotz|||

|||GAI BAT, BI IKUSPUNTU|||||

uso-pasa. Garai batetik jaitsita aLa indarrean segitzen du? Azpeitia inguruan egokitutako nahiko toki aL dago? ALa gehiegi daude?

Aukeran, postu gutxi

Urrian hasi eta azaroa erdira arte, egunero, joango naiz ehizera. Eguna argitzerako Zelatunen egoten gara gu. Ehizerako afizioa txikitatik dut. Umetan aita eta haren lagunekin joaten nintzen usotara, basurdetara... Garai batetik hona ehizak indarrean segitzen duela esango nuke nik. Gazte mordoak dago lizentziak atera eta eskopetekin ehizean egiteko zaletasuna dutenak. Hala ere, guztiotzat ehizerako nahikoa postu ez dagoela esango nuke. Gu Zelatunera joaten gara usotara eta bezperan Errezilgo soziedadean biltzen gara postuen zozketak egiteko. Jende asko eta postu gutxi, horixe dagoen panorama. Posturik onena, zalantza gabe, txabola da. Sekulako hamai-ketakoak egiten ditugu han lagunartean.

Hainbat mendizale kexatu egiten dira mendira joan eta tiro hotsa entzun eta han ibiltzea arriskutsua dela esanez. Guk tiroa gora botatzen dugu, eta ez da arriskurik izaten. Makina bat aldiz gertatu izan zaigu, uso banda bat geuregana zetorrela mendizaleak haiek uxatzen aritzea. Uso asko dago eta gehiena joan egiten da, 500eko uso banda bati tiro egin eta bakan batzuk baino ez baititugu botatzen. Gainera, postu bakoitzean bi-hiru lagun egon gaitzke, eta gehienez bi eskopeta. Gainera, ehiza denboraldia bukatzean kartutxo azalak biltzen ditugu, basoa garbi lagaz.*

|||||Ehiza denboraldia bukatzean kartutxo azalak biltzen ditugu, basoa garbi lagaz

|||||||garikoitz ugartemendia||| (ehiztaria)

Mendian beldurrez

Sekulako amorrua ematen dit mendira joan eta tiroren batek joko nauen beldurrez ibiltzeak. Ehiza garaia noiz bukatuko desiratzen egoten naiz. Asteburuero joan ohi naiz mendira eta, lasai ederrean ibili eta txorien kantu hotsa entzunez ibilaldiaz gozatu beharrean, tiro hotsa jasan behar izaten dugu. Gainera, mendi bide eta baserrietatik oso gertu jartzen dira asko eta ni neu behintzat asko izorratzen nau ehiztarien jardunak.

Ateratzen duten zalaparta gutxi ez eta, gainera, ehiza postu inguruak zerri eginda uzten dituzte. Ehizera joan eta akaso birgarrorik edo usorik bota gabe, esku hutsik, izango dira etxera bueltan, baina tripa betetzeko hamaiketako latzak egiten dituzte! Ez dira ez, alferrik galduko! Edari latak eta zabor poltsa ugari pilatzen da ehiztariak ibilitako lekuan.

|||||Ehiztariak naturarekiko begirunerik ez dute batere! Lotsagarria iruditzen zait

Ehiztariak naturarekiko begirunerik ez dute batere! Lotsagarria iruditzen zait.

Nik ez diot inori esango ehizera ez joateko, baina beraiek ere onartu dezatela mendian jende gehiago ere badabilela eta ehiztarien jarduna arriskutsua izan daitekeela.*

|||||||tomas agirre||| (mendizalea)




Zezena argazkitan

‘Azpeitiko Sokamutilak’ DVD-a kaleratuko dute hilaren 17an. Hona hemen Jexus Artolak osatutako argazki bildumako hainbat irudi.  Ainitze Agirrezabala  DVD-tik hartuta




▲ **KONTUZI!**

Herriko plazako kioskoan hartu dute babesa hainbat ikuslek. Zezena gaztetxoengana inguratu ahala izua gailentzen da haien begiradetan. 1984. urteko karnabaletan ateratako argazkia da.



▼ **GARABIAK LANERA KO PREST.**

Mende laurdena pasa da irudi hau argazkitan jaso zutenetik. Sokamutilek eta Argazki Elkartekoek utzitako irudiekin osatu du 'Azpeitiko Sokamutitak' DVD-ko argazki bilduma Jexus Artolak.



▲ **ZEZENARI BEGIETARA SO.**

Jexus Artolak 1981eko inauterietan zezenaren parean, aurrez aurre, ateratako argazkia da. Kanposantu bidean garai batean Alabierrek zeukan ukuluan gorde zuten orduan zezena.

▶ **AURRERA EGIN EZIN.**

Inbutu ederra egin eta jendea lurrean erorita ageri da argazki honetan. Torero lanean, montera buruan eta kapotea eskuetan dituela, ageri da Txomin Larrañaga. 1993ko inauterietan Bustinzuriko Errebalean Jexus Artolak ateratako argazkia da.



▲ **IHES EGIN EZIN.**


Gaupasa egindako lau gazte hauek nahikoa lan dute hesiaz beste aldera pasatzen. Jexus Artolak ateratako argazkia da.





▲ **ZIZTU BIZIAN.**

Dionisio Aizpuru *Kurro* zezenari ihesika ageri da, Bustinzuriko Errebaleko estratan. 1984an aterata dago.




▲ **ESTROPEZUKA.**

Zezenak lepotik lotuta eramaten duen sokarekin gazte honek estropezu egiteko unea jaso zuen Juan Carlos del Pozok, 2005. urteko karnabaletan. Txikiteo Elegante egunean Erdi kalean ateratako argazkia da.



▲ **ZALETASUNA ODOLEAN.**

Artexeneko zubian aurrera korrikan doazen sokamutilak argazkitan jaso zituen Joxe Migel Arrutik, 1959ko inauterietan. Orduetik hona herria bera eta jazteko era asko aldatu badira ere, sokamuturrerako azpeitiarrek duten zaletasunari gogor eusten diote.✘



Kartzelako eguzki printzak

Bakardadea eta tristura nagusi den lekuan kanpoko haize freskoa estimatua izaten da oso. Ondo asko dakite hori hiru emakumeok. 📝📍 Ainitze Agirrezabala (Donostia)

B

akardadeak eta tristurak bere egindako zulo beltzean argi printzak dira, egunsentiko aire freskoa. Denborak pausatuta dirauen lau hormen arteko errutina hautsi eta aurrera egiteko askoren motibazioa, babesa eta indarra dira. Nekez imajina daitezke 84 eta 75 urteko Marikruz eta Arantxa Azkue ahizpak espetxean. Alabaina, aurtengoa, hogeitabigarren ikasturtea dute Donostiako Martuteneko kartzelan. Pintura erakusten du Marikruzek; ingelesa Arantxak. Mojak dira, Jesusen Alabak kongregaziokoak. Maria Jesus Arregi azpeitiarrak ere Martuteneko espetxeko preso askoren tristurak arindu ditu, alboan eseri eta entzute hutsarekin. Hamabostean behin, igandetan, joan ohi da kartzelara, duela hamalau urtetatik, hutsik egin gabe. Gizartearen alde zerbait egiteko kezka betidanik izan dute hiru emakumeok eta hartutako konpromiso honi erantzunez "barrutik beteta" sentitzen dira.

Kartzeletako "errealitate gordinaz" hitz egiteko Uztarriak Donostian, Jesuitinen ikastetxean, bildu zituen Marikruz eta Arantxa Azkue ahizpak eta Maria Jesus Arregi. Sola-

DATUAK

22 urte. Marikruz eta Arantxa Azkuek Martuteneko kartzelan irakasle lanetan hogeitaka urte daramatzate.

14 urte. Maria Jesus Arregik urte horiek daramatza Martuteneko kartzelara presoak bisitatzeraz joanez.


saldiaren ondoren, Martuteneko kartzela atarian atera zituzten argazkiak.

Egundoko tabako usaina

Ondo gogoan dute Azkue ahizpek Martuteneko kartzelan sartu ziren aurreneko eguna: "Sekulako inpresioa egin zidan, egundoko tabako usaina zegoen. Atzera eginarazi zidan", gogoratu du Arantxa Azkuek. Maria Jesus Arregiren esanetan, "preso guztiak goitik-behera begira" geratu zitzaizkion: "Izan

ere, ez zekiten norengana gindoazen. Gero, badakite bisitan goazela eta denak hurbiltzen zaizkizu. Azkenerako bidali ezinda ibiltzen gara; batzuek ez dute familiako bisitarik jasotzen eta maitasun handia hartzen diogu elkarri".

Pintura eta ingeles eskolek arrakasta handia izan dute, betitik: "Klasean dauden bitartean kartzelan daudela ahaztu egiten dutela esaten digute. Pinturako klaseetan, batez ere, denbora konturatu ere egin gabe pasatzen zaie", adierazi du Marikruz Azkuek. Arregiren esanetan, "klaserik eta kanpoko bisitarik ez duten egunetan kartzelan denbora geldidagoela esaten digute, egunero antolamendu bera baitute". "Hitz egiteko sekulako premia izaten dute eta margetzen ari diren bitartean asko hitz egiten dugu elkarrekin", gaineratu du Marikruzek. "Klaseetan beren artean ere beste konfiantza giro bat sortzen da. Elkarri entzun, lagundu eta aholkuak ematen dizkiete", gehitu du ahizpetan gazteenak. "Nik beti diot neurekiko, irrifarre batekin sartu behar dudala kartzelara. Penak badituzu, tristurak kanpoan laga, ez sartu triste. Eta, ezin▶





Arantxa eta Marikruz Azkue ahizpak eta Maria Jesus Arregi, Donostiako Martuteneko kartzela atarian.

baduzu hori egin, ba ez sartu”, gehitu du Marikruz Azkuek. “Zoragarria da beraien artean zer adiskidantza harreman sortzen den ikustea. Oso ondo ezagutzera iristen gara, hainbeste denbora elkarrekin pasata”, dio Arregik.

Ikasleen artean denetik izan dute, baita politikariak ere: “Herri Batasuneko Mahai Nazional osoa izan dut ingeles ikasle: Rufi Etxeberria, Joseba Alvarez, Itziar Aizpurua... Arnaldo Otegi klasero deskafeinatua ematen zidan. Esaten nion, ez zuela zertan horrela ibili, baina haiengana eskolak ematera joanda, hori eta gehiago merezi nuela erantzuten zidan”, adierazi du Arantxa Azkuek.

Kartzela guztiak txarrak

“Pertsonak birgizarteratzeko kartzelak ez dutela balio eta kartzela guztiak direla txarrak” salatu dute hirurek. Azkue ahizpek gogoan dute epaile batek topaketa batean adierazitakoa: “Espetxeak porrota dira, ez dute ezertarako balio. Erorita dagoenak birgizarteratzea behar du. Presoek orientazioa, jarraipena eta heziketa behar dituzte; alabaina, la-

guntza guztia kentzen zaie. Presoak gizaki sentitu behar du, eta modu horretan baino ezin daiteke birgizarteratu. Guk, ordea, zenbat eta zigor handiagoa jarri, orduan eta gehiago bakartzen ditugu. Kartzela konponbide erraza da: atek itxi eta kito”. Birgizarteratzeko prozesu horretan “presoari, batez ere, familiak, lagunak eta bere herritarrek lagundu” diezaioketela irizten dio Arantxa Azkuek.

Kartzeletako sistema aldatu beharra dagoela diote. Arantxa Azkuek esanetan, Martuteneko espetxea garai batekoarekin alderatuta, orain “irekiagoa” da: “Gainontzeko kartzeletan emakumeek eta gizonek ezin dute elkar ikusi, baina Martutenekoan bateratuta daude”. Martuteneko espetxean emakumeek, gizonek eta hirugarren graduan daudenek elkarrekin ematen dituzte eskolak eta igandetako mezetara ere batera joaten dira. “Kartzela bera bestela zaharra da eta sistema berriz zaharra, XVIII. mendeko sistemak baitira”, adierazi du Marikruz Azkuek.

Egungo kartzelak “birgizarteratzeko baino gizakia zigortzeko” direla salatu du Arantxa

Azkuek. “Buruko gaixotasuna dutenak, drogazaleak, krimenak burutu dituztenak eta legea urratu dutenak denak nahastuta daude”. Arregiren esanetan “basakeria” da, Martutenen buruko gaixotasuna duten hainbeste lagun egotea: “Horiek ez lukete kartzelan egon behar; horiek zentroetan egon behar lukete. Baina, noski, zentroak eraikitzea baino nahiago dute kartzelak egitea. Sistema penagarria da”. Injustizia handietako bat hori dela azpimarratu du Arregik: “Gusturra jakingo nuke, kartzelatik irtetzen direnen artean okerrago irtetzen direnen kopurua zenbatekoa den. Okerrago irtetzeaz gain, kasu askotan familiako harremana ere okertu egiten da eta horrek ez die batera laguntzen. Kartzelek ez dute ezertarako balio”, dio Arregik. Kalera irtetzen direnen artean, batzuk, gainera, “gorrotoarekin” ateratzen direla dio Marikruz Azkuek: “Beraiek ordaindu dutelako odaindu behar ez zuten guztia”. Marikruz Azkuek ustez, “presoaren eskarmentuaren arabera, batzuei egindakoaz pentsarazten die, baina kartzelak pertsonak okertzeko balio dute”.

► Gai honen arira, espetxe-erakundeetako zuzendari Mercedes Gallizok berriki egindako adierazpenak aipatu nahi izan ditu Arantxa Azkuek: Espetxeak "ez direla pertsonak bil-tzen dituen zabortegea", zioen zuzendariak. "Birgizarteratzea erraztu eta delinkuentziarekin errotik bukatzeko, kartzelaren alternatiba izango diren bestelako zigorrak garatzearen alde" mintzo zen Gallizo. Alabaina, "kartzeletako sistemak gizartearentzat arriskua diren haien zuzendariak" beharko lukeela izan gaineratzen zuen. Gallizoren arabera, "delituekin bukatzeko neurririk egokiena ez da beti askatasun gabezia" eta horretaz gizartea kontzientziatu beharra zegoen. Espetxe-erakundeetako zuzendariaren "hitz polit haiek" ordea, "haizeak eraman" dituela jabetu da Arantxa Azkue: "Gallizoren adierazpen haiek entzunda, aldaketak eman eta kartzeletako egoera hobetuko zela uste izan nuen. Baina, gauzak noladauden ikusita, atzeraka goaz". Kartzeletako "egoera gordinarekin bukatzeko" ez dela ezer egiten dio Arantxa Azkuek. "Pentsa, geroz eta espetxe gehiago eraikitzen ari dira".

Gizartearen kontzientziazioa

Gizartea "errealitate gordin" horretaz kontzientziatu beharko lukeela uste dute. Arantxa Azkueren esanetan, "gizarteak ardurarik gabe pentsatzen du kartzelak konponbide egokia direla. Zenbat aldiz entzun ote dugu gure inguruan: *sar dezatela kartzelan eta ez dadila atera sekula!* Politikoei eta epaileek diote beraiek ezin dutela aldatu sistema, gizarteak onartu egiten dituelako espetxeak eta, beraz, sistema aldatzen gizarteak ez lukeela utziko". Marikruz Azkuek dio, "jendeak ez du ezer ere jakin nahi eta nik uste dut gi-

zarteak errealitate horretaz kontzientziatu behar duela".

Arregiri ere barrua mugiarazten dio zenbaiten esamesek: "Batzuk ikaragarri aztoratzen dira herrian bertan gaztetxoentzako harrera-erxe bat ireki dutela-eta. Gisa horretako zen-tro bat etxe ondoan ireki izana eta gazte ho-rien portaera arriskutsua kritikatzeko dugu. Baina, ez gara kezkatzen mutil kozkor horiek hor sartzearen kausaz edo jatorriaz. Ba ote dakigu beraiek zer haurtzaro izan duten?". Gogoetarako galdera bat egin du Arregik: "Ezer egiten al dugu gizarte justuago bat edukitzeko?".

Martuteneko kartzelako bizi-baldintzei da-gokienean, behar baino jende gehiago dago-ela adierazi du Arregik: "Gela bakoitza sei la-gunek partekatzen dute, hiruko literetan. Jende gehiegi dago. 400 preso daude eta berez, 250 pertsonentzako lekua dago".

Kalera ateratzeko prestatu gabe

Presoak kanpora ateratzen direnerako ere ez dutela prestakuntzarik jasotzen adierazi du Arregik: "Kartzelara bisitan joan nintzen lehen egunetik galdetzen dut zergatik dago-en espetxe barruan jendea ezer egin gabe, borobilean eseri eta zigarroa errez potrojo-rran. Presoei zergatik ez zaizkie ardurak jar-tzen? Lanerako obligazioa eta disziplina era-kusten badiezu kanpora ateratzen direnera-ko lanerako prest daude. Indarrean dagoen sistemaren arabera konponbiderik izango ez balute bezala da". Arantxa Azkueren esane-tan, ekonomatuan, garbategian... egiten di-tuzte lantxoak, baina kanpoko enpresek utzi zioten barruan dauden presoek lana bidaltze-ari. "Gainera, nik ez dakit nola konpontzen diren, baina kanpoan baino droga gehiago



||| "Guk ez ditugu epaitzen, ez diegu sekula galdetu izan dauden lekuan egoteko zer egin duten"

MARIA JESUS ARREGI

Espetxe Pastoraltzako kidea

mugitzen da barruan", gaineratu du Arregik. Hirugarren graduan, kanpora ateratzeko bai-mena izanda lanik bilatu ezin duen mutil baten kasua kontatu du Arantxa Azkuek: "Mutil jatorra da oso. Batere babesik gabe mila bat curriculum bidaliko zituen honezke-ro. Laneko elkarrizketetara joan eta galde-tzen diote: *Eta, zu azken lau urteetan zertan aritu zara, ba?* Eta, kartzelan egon dela ezku-tatzearen, emazteak utzi eta honek seme-alabak ikustea galarazita, depresioarekin egon dela erantzuten du". "Kartzelan zigorra bete, kanpora atera eta lan munduan sartze-ko garaian kartzelak babesa eman behar lioke presoari. Lan bila doana kartzelan egon

Hartu-eman herriko presoekin

||| Duela hamalau urte hasi zen Azpeitiko elizbarrutia Espetxe Pastoraltzarekin. Azpeitiko erretore Kepa Susperregiren esanetan, "Patxi Aizpitarte apaiza izan zen gizarte ekintza hau bultzatza eta taldea osatu zuena". Azpeitiko elizbarrutiak bere ekintzen artean gizarteari begira esparru bat du: Caritas, Osasun Pastoralta eta Espetxe Pastoralta. "Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako taldeek elkarlanean dihardugu eta Martuteneko kartzelara bisitan joatean hiru herri horietako presoekin egotea da gure helburua". Herrian hartu-eman edozein presoren familiakoekin dutela adierazi du Susperregik. "Nik badut Azpeitiko familia baten adierazpen

pertsonala. Nolanahi ere, Maria Jesus Arregik eta gainontzeko kideek dute, batez ere, harreman zuzena presoekin".

Espetxe Pastoraltzakoak urte guzti hauetan egiten ari direna "asko baloratzen" du erretoreak: "Ez da erraza norbere denbora arlo horretara eskaintzea. Urteak daramatzate hartutako konpromiso honi leialtasunez erantzunez eta hori eskertzekoa da. Gainera, denborarekin pertsona gehiago bildu dute taldera. Beste batzuk, berriz, bisitetara joateari utzi diote, bizitzan bestelako konpromisoak dituztelako". Maria Jesus Arregik 14 urte daramatza honetan eta Josu Badiola herritarra bi urtez ibili izan da bisitak egiten.



Kepa Susperregi, erretorea. |||



||| “Buruko gaixotasuna dutenak, drogazaleak, legea urratu dutenak... denak nahastuta daude”

ARANTXA AZKUE

Martuteneko irakaslea

dela jakiten duenean enpresaburuak ez dio bere enpresan lanean hasteko aukerarik ematen”, adierazi du Arregik.

Presoen errespetua irabazi dute Azkue ahizpek eta Arregik, haiengana iristen jakin dutelako: “Guregandik ez direla epaituak sentitzen esaten digute presoek. Maitasun eta errespetu handiz tratatzen ditugu, pertsonak balio duen duintasun horrekin. Guk ez ditugu epaitzen, ez diegu sekula galdetu izan dauden lekuan egoteko zer egin duten. Kontatzen duten guztia, hitz egiteko premia dutelako egiten dute”, dio Maria Jesus Arregik. Arantxa Azkueren esanetan, “ez dute guregandik epaituak izateko beharrik; izan ere, espetxean daude dagoeneko epaitu eta zigortu dituztelako”.

Sufrimendua eta injustiziak

Kartzela barruan “injustizia eta sufrimendu asko” dagoela diote. “Lau gramo kokainarekin harrapatu eta, gutxienez, lau urtetik gorako kartzela zigorra ematen dizute. Eta, nola li-teke, milioika kilorekin trafikatzan duten ho-

rietako inor barruan ez egotea? Horiek harrapatzeko modurik ez al dago? Begira zer injustizia”, dio amorrus Arregik: “Nik beti esaten dut, asko sufritu duen hark sufritzen duela berriz ere, eta ez benetan sufritu behar-ko lukeen hark”.

Martutenen kondena konplitzen dagoen neska kolonbiar baten kasua aipatu du Arantxa Azkuek: “Bi seme-alaben ama, senarraren laguntza eta babesik gabe, Kolonbian etxeak garbitzetik ateratzen zuen aurrera bizi-modua. Diruaren trukean droga pasatzea eskaini zioten bi bider. Ez zuen onartu eskaintza. Berak ikusten zuen droga pasatzetik bizi ziren hainbatek Kolonbian etxeak eraikitzen zituztela. Azkenean tentazioan erori eta harrapatu egin zuten. Neska gaixoak gogotik egiten du negar. Lehen, etxeak garbituz, miseria bizi zirela dio, baina, orain, haren familia aurrera norik aterako duen esaten du behin eta berriz, atsekabetuta. Begira zer sufrimendu, beldurtzekoa”. Arregik dioenez, “gu gauden lekutik epaitzen ditugu gainontzekoak. Nik ba al dakit inor epaitzerako, bere egoera nolakoa den? Ez jakin beraien lekuan egongo bagina, geuk ere zer egingo genukeen”. “Gurasoen, senideen, lagunuen maitasunik gabe, kartzelako presio horrekin ez da harritzekoa presoek beren buruaz beste egitea”, dio ahizpetan gazteenak.

Artetik, hizkuntzatik, fedetik eta bisitak egitetik haratago, goxotasuna, babesa eta laguntza ematen dieten hiru argi printza dira preso askorentzat: familien eta presoan arteko zubi lana egiten dute, epaiketetara joaten dira eta kartzelatik ateratzen direnean laguntzen jarraitzen diete.*

||| “Pinturako klasean dauden bitartean kartzelan daudela ahaztu egiten dutela esaten didate”

MARIKRUZ AZKUE

Martuteneko irakaslea

Herritik kanpo

||| Sortzez Azpeitikoak izanagatik, herritik kanpo egin dute bizitza Marikruz eta Arantxa Azkue ahizpek. Bietan zaharrena, Marikruz, Bilbon, Iruñean, Tolosan, Andoainen eta Lasarten aritu da lanean. Ikasketaz dekoratzailea da eta berea izan zen Lasarteko Arantzazu eliza borobilaren ideia.

Arantxa Azkuek, berriz, 26 urte egin zituen Euskal Herritik kanpo, Ameriketako Estatu Batuetan. Louisianan eta Ipar Karolinan 18 urte eman zituen. “Garai hartan beltzen bazterketa indarrean” zegoela gogoratu du. “Beltzak gure eskolara joaten ziren, parrokiak zuen eskola baitzen”.

Pedagogia ikasketak egin zituen New Orleansen, Louisianako hiririk handienean. Literatura ingeleseko klasean bera zen ikasgelako zuri bakarra. New York estatuan ere egin zuen lana. “Hasieran, polizia moduan patruilan joaten ginen apaiz bat eta bost moja hiru autotan, hispanoen bila”, kontatu du Arantxa Azkuek. “Bilatzen genituen hispanoekin elkartu eta laguntza eskaintzen genien”.

Euskal Herrira bueltan, Donostian, bi ahizpek “garbi” zuten baztertuekin egin nahi zutela lana. “Gizartearen alde egin nahi genuen guk zerbait”, dio ahizpetan gazteenak. Premiarik handiena espetxean zegoela adierazi ziela gogoratu du Marikruz Azkuek. Hala hasi ziren Martuteneko kartzelan irakasle lanetan. Duela 22 urte.



Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

lentzeria
mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87

Bidea erakusten

Euskal Herriko ikastolek mugaz gaindi elkartuko dituen erakunde berria eratu dute. Azpeitiko Ikastola Ikasberri urrian sartuko da bertan. 📧📍 Mailo Oiarzabal

Hamabost urte inguru luzatu den prozesuari amaiera eman zioten Euskal Herriko ikastolek joan den ekainaren 13an. Egun hartako batzarrean, ikastola guztiak elkartzeko helburuarekin sortu duten erakunde berria jaio zen: Euskal Herriko Ikastolak kooperatiba. Erakunde berriak badu berezitasun nagusi bat: estatuz gaineko erakunde izango da, kooperatiba europarra. Europako Batasunaren legediaren barruan kokatzen den figura juridikoa da kooperatiba europarra eta estatu ezberdinetako erakunde edo enpresak elkartzeko aukera eskaintzen du. Erakunde mota berria da; ikastolek sortu dutenaren aurretik, Italia eta Austriaren arteko beste esperientzia baten berri zeukaten bakarrik.

Orain arte lurraldeetako federazioetan eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioan bazkidezea espero dute erakundearen aldeko apustua egin dutenek. Ikastola bakoitzak bere urteroko batzarrean hartu behar du erabakia. Azpeitian, eta Urola Erdiko bailaran, Azpeitiko Ikastola Ikasberri da kooperatiba berrian sartzeko aukera izango duena. Batzarrak oraindik ez dute egin eta, beraz, oraindik ez dira bazkide, baina zuzendaritza batzordeko kideek ez dute zalantza handirik egiten, erabakia zein izango den galdetzerakoan. "Prozesuaren hasieratik parte hartu izan dugu", gogoratzen du Ikasberriko zuzendari-



Kilometroak 2011n?

III Oraingo "behin-behineko" kontua da, Izar Larrañagak esaten duen bezala, baina Azpeitiko Ikastola Ikasberri aukera handia dauka 2011n Gizpuzkoako ikastolen jai nagusia, Kilometroak, antolatzeko. Datorren urte hasiera arte ez dute behin betiko erabakia ezagutuko, baina "zerbait gabea beharko litzateke", zuzendariak dioenez, hala ez izateko. 2000ko Kilometroak ere Ikasberri antolatu zuen.

tza batzordeko lehendakari Elias Mendinue-tak, azken txanpan "hainbesteko ekarpenik egin ez" arren. Mendinue-taren ustez, Ikasberriko batzarrari ez zaio zaila egingo kooperatiba europar berrirako jauzia egitea: "Guk beti defendatu izan dugu, urteroko batzarretan eta elkartu izan garen bakoitzean, guretzako ikastola dela erakunde nazional bat eta, azken batean, hezkuntza mailan, herri honek daukan erakunde. Orduan, guretzako ez da gauza berri edo arraro bat, nik uste dut naturaltasunez hartzen dugula".

Urrian egin nahi dute urteko batzarrak Ikasberri ikastolan, "urriaren erdi edo bukaera aldera", ikastolako zuzendari Izar Larrañagaren esanetan. Batzarrari begira, erakunde berriaren gaineko informazioa jasoko dute Ikasberriren bazkideek. "Orain arte zerbait zabal-tzen ibili gara, baina bueno. Ja badaukagu estatutuak, zuzendaritza bat ere badago. Orduan, Koldo Tellitu [Euskal Herriko Ikastolak kooperatibako lehendakaria] edo bere ingurukoren bat etorriko da, azalpenak ematera", argitzen du Larrañagak.

Erreferentzia

Ikastolen erakundetze berriak Ikasberriko langile, guraso edota ikasleen eguneroko jardunean eragin zuzen aipagarririk ez du izango. Mendinue-taren hitzetan, "egunerokotasunean, ez dut uste alde izugarrikorik izango denik. Baliabideak hobeto erabiltzea bai ekar-



Elias Mendinueta, Izar Larrañaga eta Luxio Galarraga, Ikasberri ikastolako pilotalekuan.

dezake, horrelako erakunde bat sortzeak. Baina eguneroko martxan, orain arteko bideari jarraitu beharko diogu". Sorrera fasean egonda, gauzak pixkanaka eta denboarekin zehazten joango direla uste du, bestalde, Izar Larrañagak: "Organigrama berria oraintxe definitu dute. Lehentasun bezala jarrita dago, elkarte berri horretatik ikastolekiko komunikazioa nola hobetu. Lehentasun bezala hori jarrita daukate. Orduan, nik ez dakit hori zer emaitza aterako den".

"Funtzionamenduak berak erakutsiko du", gaineratzen du Ikasberriko lehendakariorde Luxio Galarragak. Honek argi dauka, ordea, ikastolek eratu duten kooperatiba berriak Euskal Herriko gizarteko beste sektore batzuentzat izan dezakeen erreferentzialtasuna, banaketa administratiboen gaineratik lan

bateratua egiterako orduan: "Banaketa administratiboarekin ditugun arazo horiek neurri batean edo ahal den neurrian gaindituko ditugu. Baina uste dut ilusio nagusia hori dela: geuk ere irudikatzen dugula nazio mailan ari garela funtzionatzen. Nik uste dut hori falta zaigula Euskal Herrian eta ekarpen handia egin dezakegula. Badakigu euskalgintza-tik eta kooperatiba mundutik ere ari direla honen ondorioz hau pixkat berrikusten".

Egoera politikoaren gaineratik

"Egoera hau, zailtasun guztiekin, berpizte bat izan daiteke ikastolentzat", esaten du Elias Mendinuetak, ikastolen kooperatiba berriaren apustu nagusietako bat euskal curriculumaren deritzona garatzea izango dela aipatzean, eta Eusko Jaurlaritzaren berriaren asmoen hari-

ra. "Gu sortu ginenean garbi genuen eskola nazionalak izan behar duela herri honen helburu nagusia, hezkuntza mailan. Eta horren motorra ikastola izango dela. Lehen izan zela, eta orain ere bai. Publikazio garaian, orduan, ez zen ulertzen. Guk esaten genuen: politikoen eskuetan ezin ditugu utzi gure seme-alabak, politikoei interesen arabera egingo dutelako. Momentu honetan, berriz ere, nik uste dut indarra hartzen duela ideia nagusi horrek", dio Mendinuetak, Eusko Jaurlaritzan eman den aginte aldaketarekin lotura eginez.

Ildo beretik, "ikastolaren funtzioa azpimarratu" nahi du Luxio Galarragak: "Orain arte egin duen bezala, materialgintza aldetik eta, ikastolak euskal ikuspegitik hezkuntza bideratzen jarraituko du. Eta horrela bateratuta, indartuta, ikastolen mugimenduak bermatzen du, gutxien-gutxienez, etorkizuneko euskal hezkuntza proiektu batek oinarri sendoak finkatuta dituela. 'Euskal Herriatik mundura eta mundutik Euskal Herrira', euskal curriculumean ederki esaten den bezala".✘

||| "Uste dut ilusio nagusia hori dela: geuk ere irudikatzen dugula nazio mailan ari garela funtzionatzen"

LUXIO GALARRAGA *Ikasberri ikastolaren lehendakariordea*



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

|||jaione unanue|||



|||leire goenaga|||

Harremanak

Leire Goenaga. Zer moduz zoan irailleko aldapa?

Jaione Unanue. Kostata! Hala ere bi aste barru langabezian egongo naun eta, gauzak dauden bezala, akaso luzerako izango dun.

Leire. Oraintxe etorri eta berriz oporretan?

Jaione. Bai neska! Hori bai, abuztua iraila baino motzago egin zaidan.

Leire. Zer moduz ibili zarete Marokon?

Jaione. Puf! Lehenengo astean autoestimua lepo igo zitzaigun hainbeste 'guapa' eta lata entzunez. Bigarrenengoan nazkatzen hasi gintunan. Eta hirugarrenengoan desesperatu! Hi lasaiago ibiliko hintzenan Portugal aldean...

Leire. Horrelako arazorik gabe, behintzat.

Jaione. Han jarduna etengabea hunan eta hemen berriz ez dinagu batere ligatzen.

Neska euskaldun bat

Leire. Jarri ezan iragarki bat *Hitza*-n. Lehen azaltzen zunan iragarkia ez dun azaltzen.

Jaione. Zein? "Neska euskaldun bat ezagutu nahi nuke...".

Leire. Bai. Ez al haiz konturatu aspaldian ez dela ageri? Horrek honezkero ligatu din.

Jaione. Edo akaso etsi din! Urtebete pasan behintzat azaldu zunan.

Leire. Kristoren kasting-a egingo zinan urtebete... Gustura jakingo niken zenbat diru gastatu duen iragarki hori jartzen.

Jaione. Behin jartzea bost euro dun. Hala ere, *Hitza*-koek beherapenen bat egingo ote ziotenan hainbeste jartzeagatik?

Leire. Hotsegin behar hionan, dirua behintzat bazinan.

Jaione. Kar, kar. Nire izebak esaten duen bezala, ilunpean denak igoalak ditun.

|||JAIONE. "Orain etxetik irten gabe egiten ditin jendeak harremanak"

|||LEIRE. "Irribarre bat ez dun inoiz berdina izango ordenagailu baten atzean"

Leire. Egia esan jendeak gero eta arazo gehiago ditin harremanak egiteko, garai bateko erromeriak falta ditun!


Jaione. Orain etxetik irten gabe egiten ditin jendeak harremanak. Internetak jende askori lagunduko zionan horretan.

Leire. Facebook, Tuenti eta horrelakoak zauden orain modan. Zertarako irten kalera?


Jaione. Bere alde onak badituzten. Baina, era berean tristeza ere badun jendea hainbeste denbora egotea ordenagailu baten aurrean harremanak lantzen.

Leire. Harreman zuzenek bere xarma badiuten. Irribarre bat ez dun inoiz berdina izango ordenagailu baten atzean.

Jaione. Ezta ilunpean ere.✘



Berrogei urte, milaka tanta

Azpeitiko odol-emaielen taldeak egun bereziak biziko ditu hilabete honetan. Abenduan beteko da lehen ateraldia egin zuteneko 40. urteurrena, baina ospakizuna urrira aurreratu dute.  Mailo Oiarzabal

Odolaren beharra bezala, odol-emaielen lana ere ez da inoiz amaitzen. Datoren abenduan, Azpeitiko odol-emaielen ordezkari-tzak berrogei urte beteko ditu, eta ez du atsedenik hartuko.

Pedro Bereziartuak, Juan Joxe Larrañagak, Imanol Azkuek, Iñaki Odriozola *Munategi*-k, Iñaki Lasak eta Juanito Luengok ekin zioten Azpeitiko odol-emaielen bideari. Haien lekukoa esku gehiagotara iritsi da harrezkero. Guztiak gogoan eta guztien artean ospatuko dute 40. urteurrena urriaren 25ean, Loiolan.

Azpeitiko odol-emaielen egun berezia urteroko hitzordu baten barruan ospatuko dute, Urola-Kostako herrietako odol-emaile guztiak elkartzen dituen festa egunean. Eguerdian basilikan izango den mezan aurrena eta,

DATUAK

Zer. Azpeitiko odol-emaielen 40. urteurrena.

Eguna. Urriak 25 (igandea). **Ordua.** Egun osoko egitaraua **Tokia.** Loiolan. **Antolatzailea.** Azpeitiko odol-emaielen ordezkari-tza.

bereziki, Kiruri jatetxean egingo duten bazkarian, biziko dituzte ospakizunaren une nagusiak.

Hitzaldia ere bai

Urriaren 25eko jai giroko ospakizunaren aurretik –data zehazteko dago–, Gipuzkoako odol-emaielen koordinatzaile Xabin Urtzelaik hitzaldia emango du Azpeitian. Kamisetak ere atera dituzte odol-emaielak, data berezia gogoan.

ODOL-EMAILEN ZENBAKIAK

7 **emaile.** 1969ko abenduaren lehen hitzordu hartan, horixe izan zen odola eman zutenen kopurua.

800 **lagun** daude gaur egun bazkietuta Azpeitian.*



Horrelako odol-poltsa ugari betetzea da odol-emaielen ametsa, 40 urte eta gero. **Uztarrria**

BESTERIK

1 Aurreneko garagardo festa

Azpeitian ere garagardoa edan eta Alemaniako janari tipikoa dastatzeko parada izango da. Azpeitiko lehenengo Garagardo Festan zazpi zerbeza desberdin edan ahaliko dira: Affligem, Paulaner, Murphis, Fosters, Guinness, Heineken eta Buckler alkoholik gabea.

Eguna. Urriaren 8tik 11ra (ostegunetik igandera).

Ordua. 20:00-02:00 **Tokia.** Berdura Plaza.

Antolatzailea. Bertan, Azpeitiko Udala eta Iraurgi SB.

2 Sokamuturra ardatz

Makina bat ekintza izango da hiru egunez: DVD-aren aurkezpena, zezen jolasak, karretoia, ganadu txapelketa...

Eguna. Urriak 16, 17 eta 18 (ostirala, larunbata eta igandea).

Ordua. Egun osoa **Tokia.** Plaza, zezen-plaza eta udaletxeko arkupeak.

Antolatzailea. Zezen Beltz.

3 Misio taldearen azoka

Bidezko merkataritza azoken bitartez, herritarrei bidezko merkataritzari buruzko informazioa eta produktua eskaini nahi zaizkie: elikagaiak, artisaunak, arropa...

Eguna. Urriak 24 (larunbata).

Ordua. 10:30-20:30 **Tokia.** udaletxeko arkupean.

Antolatzailea. Parrokiko Misio Taldea eta Udala.*

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

||| ELKARRIZKETA DIGITALA |||||



uztarria.com
azpeitiko ataiye

“Urte guztiko gure ilusioa da”

Himalayako zazpi milako Himlung Himal (7.126 metro) mendia aukeratu dute Unai Lazarobaster Axkiolak eta Benantxio Iruretak espe-dizioa egiteko. Hona hemen Uztarriako irakurleekin abiatu aurreko egu-nean, irailaren 17an, izandako solasaldia.

Lehenbizi zorterik onena zuen abentura berri honetan. Zein prestakun-tza mota erabili duzue abentura hau egin ahal iziteko? (TorTor)

Biok prestakuntza desberdina egin dugu. Ni astebukaeretan mendira joan izan naiz, eta Unai astean zehar bi aldiz-edo korrika, egin du eta bukaera aldera, berriz, azken hilabete eta erdian-edo, mendira joan da. Neskak ere denbora kentzen du, eta denekin konplitu behar.

Bat aukeratu hasita, nolatan aukeratu duzue Himlung Himal men-dia? Zein ezaugarri dauzka? (Nerea)

Gonbidapen bat izan dugu, egia esan. Nafarren ideia izan da, eta inte-resgarria iruditu zaigu, bailara bera oso ezezaguna delako, oso jende gutxi ibilitakoa. Mendiak teknikoki zailtasun handirik ez dauka baina, batik bat, jende gutxi ibiltzen den lekua izatea egin zaigu erakargarria.

Prest al dituzue motxila eta traste guztiak? Zer zoazte, biok bakarrik, edo talderen baten barruan? Ondo ibili! (Poxpolin)

Motxilak prest, ia dena bai behintzat, bihar [irailak 18] bertan abiatzen gara eta. Hamarreko talde batean goaz: bost nafar, bi bizkaitar, gu biok eta kanariar bat (azken hau batik bat kanpamentu basean kantatzeko...).

Gaur egunean dopajea modan zegoen kirol askotan, eta mendizaleok garbi al zaudete benetan? Tentagarririk ez al daramazue? (Txispas Pie-rola)

Daramagun dopaje bakarra ardoa da eta, egia esango dugu: hogeituro ardo dira. Axkiola ez dago oso konforme, baina ni (Irureta) oso gustura

nago. Horixe gauzarik kimikoena. Eta hori dopajea bada, hi ere majo hartuta ibiltzen haiz.

Mendiak zer ematen dizue hain urrutira joateko? (Hodei)

Hau galdera sakona da. Neuretzako (Irureta) urte guztiko lanaren ondorengo irteera da, urte guztiko ilusioa. Niretzat (Unai), paraje berriak ezagutzeko aukeraz gain, helburutxo bat ere bada, orain arte igo ez dudana alduera bat delako. Horrek ere motibatzen nau.*

||| Batik bat, jende gutxi ibiltzen den lekua izatea egin zaigu erakargarria



AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12


Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Lamaldiak,
943.15.16.40
ALBARTARI KLINIKA

PEUGEOT
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
**URBISTONDO
MARGOAK**
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **domusa**

HITZ GEZIDUNAK

	Harri mota		Jantzi mota		Hartzera behartu		Zintzoa		Antzez-lanaren atal
	Gurdizaina		Galanki		Piltzarrak, pildak		Erauzi		
	Ez dute lagunik								
	Musika moldea								
Buru militar		Landare xehea						Tona	
Ez estua		IRUDIAN						Beherako	
					Juduen festa				
					Australiako animalia				
Palanka jaurtitzaillea								Eguzkia	
Goi aldea				Gizonekiko hika			Suari dario		
				Bilo			Joan den urtea		
Metal mota						Toka, die			
Ubide						Ez eme			
				Lalekin jarduten du					
				Kontsonantea					
Atsegina-razia									

Egilea: Luma

* Lapurdiko hiriburua

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudietako zortzi garraio mota hauen izenak




A	E	D	S	S	E	P	I	U	K	A	L
I	M	A	N	I	K	Z	A	G	E	H	A
K	E	N	M	O	S	K	L	I	O	M	R
M	A	L	U	A	X	O	P	T	I	O	I
E	D	U	R	R	B	A	X	E	Z	T	A
T	E	A	T	O	I	S	M	U	S	O	K
U	R	T	A	O	R	U	O	A	M	R	A
E	Z	E	H	A	M	B	S	I	E	R	K
E	I	L	N	A	T	O	E	K	O	A	R
M	I	K	L	A	N	T	B	O	S	P	I
Z	T	I	N	T	I	U	A	I	H	E	L
O	I	Z	Z	O	S	A	P	A	L	K	I
I	L	I	A	D	R	O	E	H	I	A	M
D	A	B	P	S	E	R	O	G	R	U	D

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	I	Z	A	R	A	T	E	K	A	L	●
I	R	V	I	A	L	●	L	A	N	A	K
K	E	I	Z	●	A	O	I	O	D	O	●
E	K	●	A	K	O	T	●	A	O	I	G
●	A	R	I	A	R	A	N	K	A	L	A
O	K	Z	A	P	●	A	V	A	B	A	Z
T	●	A	R	A	R	A	L	A	B	●	K
K	A	R	A	R	A	K	A	B	●	●	●
A	N	A	Z	A	V	A	G	A	Z	O	R
●	O	●	H	●	J	●	A	●	●	●	●

HIZKI ZOPA



ZEIN DA?



- ||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTERAKO EPEA. Urriak 19 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak
- ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da
- ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN ABUZTUKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



GOIKO SOLAIRUKO LEIHOA FALTA DA



IRABAZLEA



Jon Garagarza Uztarrriako bazkidea izan da lehiaketako 109. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Jon Garagarza, saria eskuetan duela.

Odriozola Ardoetan

Larchago kriantza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Kriantza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Azukrea

Azukrea garrantzi handikoa da gizakion elikaduran. Gehiegi hartuz gero, giblean eta giharretan biltzen da, ariketa fisiko gogorra egin eta azukrearen beharra nabaritzean odolera isurtzeko.

Estualdietan gorputzak gibelerara jotzen du laguntza eske, glukogenoak –biltegiatutako azukreak– bere energia askatu eta ahulezia egoeratik irteteko. Egoera horretan, bareak heldu digula esan ohi dugu. Azukre asko kontsumitzen duenak ariketa fisiko gutxi egiten badu koipe bihurtzen du.

Azukre-iturri garrantzitsuenak ogia, pastak, gailetak, arroza eta platanoa dira. Baina, gure gorputzeko azukrearen gehitzea ez dator beti horietatik, diabetegatik baizik. Gehienetan, diabetea herentziako gaixotasuna da eta Euskal Herrian 50 urtetik gorako %5ek du. Gaixotasun larria da, nahiz eta hori duten askok horrela ikusi ez. Ezin da ahaztu diabetek zeharo hondatu dezakeela giza burmuina.

Banting eta Best kanadiarrek aurkitu zuten diabetearen kontrako intsulina tratamendua, 1921ean. Egun diabetearen munduak asko eboluzionatu du. Esperimentu ugari daude martxan, baina oraindik ez daude salgai gizakien tratamendurako. Atzerapen handirik gabe, eraginkorrak eta guztien onerako izatea espero dezagun.*



Julian bereziartua

XABIER ZUBIMENDI *yoga irakaslea*



1. Zer da yoga?

Norbere buruaren jabe izanik, adimena gidatzea.

2. Postura bat?

Sastrearena.

3. Zein da helburua?

Arnastu, lasaitu eta gozatzea.

4. Non dago gakoa?

Arnasketan. Jaiotzetik hil arte egiten baitugu.

5. Eguneroko bizitzan zer aplikazio du?

Kontzentrazio gaitasuna eta errendimendua handitzen ditu.

6. Zer maiztasunekin egiten duzu yoga?

Goizero pare bat ordu; arreta handieneko garaian.

7. Edonork egin al lezake?

Ikasleen beharretara egokitzean datza maisutasuna: haurdunak, fibromialgia dutenak...*

Ainitze Agirrezabala

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye


|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak
|||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero 7.000 orrialderen bisita
|||orain ikusi: iragarkilaburrak.com webgunerako lotura





**eskerrik asko
parte hartzeagatik**



Barruko zera hori...

Azkoitian jaio eta hazi, Azpeitian bizi eta bihotza Errezilgoa duela esan daiteke Gurutze Eizmendiz. Antzeztea, berriz, pasio eta ofizio du. 📌 Mailo Oiarzabal

Probatu gabe ezin ba jakin, zerbait gustatuko al zaigun ala ez. Gurutze Eizmendiz (Azkoitia, 1968) ez dio muzin egiten gauzak probatzeari. "Afizioa, afizioa... ez dakit, ba", esaten du, bere ohiko eginkizunetatik kanpo zer egitea gustatzen zaion galdetuta. Probatu, eta egin, gauza bat baino gehiago egin ditu, baina probatu dituenen artean bat izan da, nabarmen, barrena bete diona: antzerkia. Antzezle lanagatik da ezaguna Eizmendi. Lakrikun taldean betetako ibilbideari esker nagusiki, Azpeitia mailan batik bat; eta telebistari esker herriatik haraxeago joanda, Euskal Telebistaren *Goenkale* telesailen Belenen rola bete zuenetik.

Probatu arte jakiterik ezin, baina Gurutze Eizmendiri antzerkia probatzeko aukera iritsi zitzaionean ezin esan, era berean, zerbait berezia piztu ez zitzaionik. "Ez dakit, igoal aukera horren zain egoten zara; zeu bila ez zara joaten, baina aukera hori daukazunean esaten duzu: nahi dut probatzea. Ikusi nuen baietz, nire mundua zela hori", esaten du. Aktore bihurtzearena betiko amets izan duen horietakoa denik ere ezin esan, 24 bat urte zituen arte ez baitzuen harremanik izan eszenatokiekin. Ordurako ezkondata zegoen eta ama ere bazen, eta hortik etorriko zitzaion, hain zuzen ere, antzerkiarekin apro-



ba egiteko aukera: "Nire alaba Karmelo Etxegarain ibiltzen zen eta han sortu zen, halako tailer moduko bat, gurasoentzako eta irakasleentzako, antzerki ikastaro bat bezala. Eta apuntatu egin nintzen; esan nuen, 'hau da nire aukera, oraintxe'. 'Nik horretarako badut horrelako zerbait...!', pentsatu nuen". Hantxe hasi zen, eta ikastaro hartatik sortutako taldetxo batek gerora Ikasberrin topo egin eta Lakrikun taldea sortu zuenean ere han zegoen Gurutze Eizmendi. Eta gaur arte.

Lotsatiak zerbait lo

Txikitatik aktore izateko ametsik eduki ez arren, amets definiturik ez behintzat, antzerkirako grina "barruan egoten" den zerbait dela uste du. Bere hitzetan, "igoal lo egongo da. Txikia zarenean ez zara konsziente, igoal aukerarik ez daukazulako; nire garaian ez nuen aukerarik eduki. Baina hor egongo zen, nik uste, gero aukera izan dudanean 'bai, nahi dut' esan nuelako". Inguruko askoren harridurarako egin zuen nonbait antzerkiaren hautua; aktore ezagun askori entzuten zaie berez oso lotsatiak direla, eta Eizmendiz askok agian sinetsi ere egiten ez duten kontu hori bere kasuan behintzat egia dela baieztatzen du. "Ez, justu kontrakoa naiz eta", dio, komedianta sena betidanik nabar-



MOTZEAN

AKTORE BAT?

Joseba Apaolaza asko gustatzen zait, erregistro askoko aktorea da.

ANTZEZLAN BAT?

'Greban gaude'. Ez dut uste inork gaiditzen duenik!

JAKI BAT?

Asko-asko gustatzen zaizkit... angulak! Baina horiek ezabatuta dauzkat, ia ezinezkoa da eta jatea, gaur egunean.

EDARI BAT?

Edaria baino gehiago, inguru eta momentua gustatzen zaizkit: egunero Charlie-
nean hartzen dugun ardoa.

mendu al zaion galdetuta. "Ni ezagutzen nauenak esaten du... puf! Lotsatia gehiago naiz, ez naiz hiztun eta ireki horietakoa. Harritu egiten dira gehiago, nondik ateratzen dudana indar hori, justu normalean ez naizelako horrelakoa". Alderantziko kasuak ere ezagutzen ditu: "Jende bati gertatzen zaio, kalean ikusten dituzula eta 'hara zer zalabardera, antzerkitako primerakoa'; eta haiek igoal juxtu eszenatoki gainean txikitu egiten dira. Eta ni, berriz, aldrebeska".

Zerbait gehiago

Aktore lanetik bizibidea ateratzea ez da gauza erraza, are gutxiago euskarazko antzerkian jardunda. Gurutze Eizmendi ez da



1. Gurutze Eizmendi institutu garaian, ikasleek antolatzen zuten moda desfilean. 2. 'Greban gaude' lana dozenaka aldiz taularatu dute Alaitz Olaizolak, Idoia Urangak eta Gurutze Eizmendik (hurrenez hurren ezkerretik eskuinera, argazkian). 3. Errezilko koadrilarekin, Azpeitiko saninazioetan garai batean ohikoa zen estanpan. Eskubitik aurrea da Eizmendi.



aktore lanetik bizi, Goenkale-n lanean aritu zen lau hilabete inguruko tartea alde batera utzita. "Telebistak hori dauka ederra, diru aldetik behintzat erosotasun bat ematen dizula. Baina epea ez dakizu", aitortzen du. Aktore profesionala dela ezin esan, baina bai antzerkia afizio hutsa baino zerbait gehiago dela. "Engantxatu egiten zaituen gauza bat da -azaltzen du-. Afizioagatik bakarrik... Noski, askotan lan asko egin behar duzu, eta erretzera ere ailegatzen zara. Bizi egiten duzu, barruan dagoen gauza bat da, eta hori atera behar dago. Eta disfrutatuta egiten duzu, asko. Nik antzerkirik gabe ezingo nuke".

Dena dela, antzerkiak eman dio orain daukan lanpostua, Azpeitiko Ikastola Ikasberrin

Bide erakusle

|||Eskola mundutik inguratu zen Gurutze Eizmendi antzerkera, eskola inguruan lan egiten du antzerki tailerrekin... eta etxean ere eskola propioa dauka. Erika eta Aiora, Gurutzeren alabak, amaren urratsen atzetik hasiak dira. "Zaharrena badabil, Alaitzekin [Olaizola] ibiltzen da eta gero aparte egin ditu gauza batzuk ere telebistan. 20 urte ditu. Besteak 16, eta nirekin dabil, ikastolan, antzerki tailerrean; gustatzen zaio hari ere", dio Eizmendik.

Txikitatik ezagutu dute ama antzerki munduan murgilduta, eta gaur egun amaren lanaren kritiko ere badira. Etxean kritiko nagusia ordea, Eizmendiren esanetan, senarra du: "Bueno! Hau horrela edo bestela, bere iritzia beti ematen du"

ematen dituen tailerrak zuzenduz. Antzerkiak egunerokoaren ordu asko kentzen dizkio. Ikusle moduan ere gustatzen zaio, "besteak zer ari diren egiten" ikusteko. Gainerakoan, kirola egitea ere gustuko du. Pilotan, palaz nahiz eskuz, eta korrika ibili izan da, baina une honetan ez die orain dela urte batzuetako tartea eskaintzen..

Oroitzapenak, Errezilen

Azkoitian jaio eta 16 urte bete arte han bizi izan arren, "jende askok pentsatzen du erre-zildarra naizela", dio Gurutze Eizmendik. Gurasoak biak Errezilgoak izanda, asteburuero hara joaten zen beti familia; aitaren aldeko etxera, Untzeta baserrira. Gero, bizitzera ere hara joan ziren. Errezilen zuen koadrila Gurutzek, baita Azkoitian bizi zenean ere, eta hangoak ditu txikitako eta gaztetako oroitzapenik onenak. Azkoitiarekin, aldiz, apenas duen harremanik. "Lagun batzuk badauzkat -kontatzen du-; lehen egiten genituen afariak eta elkartzeko ginen, baina aspaldi honetan ez, kontaktua galduta ja".

"Oso aktiboak ginen", dio, Errezilgo lagunartean gogoratuta. Herri txikietan "beste zerbait" badela uste du, "ez ginen aspertzen". Eta, oroitzapen haietan murgilduta, oholtza baten gainera eta jendaurrean estreineko aldiz Errezilen igo zela akordatu da, irribarrez. "Festa batzuetan dantza egitea eskatu genion Udalari. Halako koreografia bat osatu genuen, utzi egin ziguten eta egin genuen, dantza hori. Oso polita izan zen. Zenbat urte edukiko genuen ba? 12-13 urte. Eta animatu egin ginen. Esaten dizut, igoal barruko hori...".*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urriaren 28an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	94 35 12 00
Bai Euskarari	90 24 30 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	94 30 08 88

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (URRIA)

EGUNEZ

1-5-10-11-14-22-26-31	2-7-15-23-27	3-4-9-13-21-30	6-8-12-16-17-20-29	16-19-24-25-28
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).
943 811949	943 815974	943 811350	943 080258	943 811274


GAUEZ

1-5-10-11-22	2-7-23	3-4-9-21	6-8-20	19-24-25	12-17-18-30	13-14-26-31
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811949	943 815974	943 811350	943 080258	943 811274	943 851966	943 850660

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



INFORMAZIOA SAREAN.

Ikasturte berriari begira jarri da Udaleko Kirol Patronatua. Ikastaroen ordutegien eta prezioen berri Kirol Patronatuaren webgunean eskura jarrita daude, www.azpeitikirolopatronatua.net-en.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarrria.com/azpeitia/
autobusak

ELISABET GARMENDIA

Lima eta Ayacucho (Peru)

“Titikaka Lakuan su hartu zinan gure itsasontziak”

Lau hilabete egin ditu Perun, erizain praktikak egiten. Berriz errepikatzeko esperientzia dela dio. 📌 Ainitze Agirrezabala

Nolakoak ditun perurarrak? Gure aldean irekiak. Oso ondo hartuak izan gaitun, jende oso onarekin egin dinagu topo. Izatez oso lasaia ditun, patxada handia dituen. Ez ditun ez berehalakoan estresatuko! **Zer dun Perutik gehien gustatu zainana?**

Mendia, kosta eta oihana dituela. Machu Pichu mendian dagoen garai bateko inken herrixka, berriz, harrigarria dun.

Eta gutxien gustatu zainana?

Matxismo handia zagon. Gizonezkoek agintzen dituen eta emakumeak haien menpe zauden. Tratu txarrak jasotzen dituzten emakume asko zagon.

Non egin ditun erizain praktikak?

Lehen hilabetean Limako osasun zentroan aritu nindunan. Hamahiru urterako ama izaten ditun hango neskatokak eta asko abandonatu egiten dituzten haien bikoteek. Gainera, sarritan etxeko babesik ere ez dituen izaten. Etxez etxe eta kalean topatutako gaztetxo haurdunak osasun etxera eramaten genituan. Antisorgailuen inguruko hitzaldiak eman eta ginekologia zerbitzua eskaintzen genie-

nan. Horiez gain, administrarritza kontuak eta manikura egiten, sukaldatzen eta josten irakasten zitzaianen.

Limatik nora joan hintzenan?

Baserri mundura. Ayacucho probintziako Pampacangallo herrira. 3.700 metrora zagon; ez dituen elektrizitaterik, ezta ur edan-garririk ere. Hango ospitaleko ebakuntzategelan laguntzen aritu gintunan. Hemengo aldean baliabide gutxi dituen; gela arrunt batean egiten dituzten ebakuntzak eta garbitasuna ere ez dun hemengoa bezain zorrotza.

Turismoa egiteko ere aprobetxatu dun egonaldia, ezta?

Bai, leku zoragarriak bisitatu ditinagu: Iquitos oihana, Arequipako Colca arroila, Machu Pichuko bailara sakratua... Titikaka lakuan sekulako sustoa pasa geninan itsasontzian gindoazela. Gasolinaz betetako bidoia tapoirik gabe zegoan, irauli eta dena motorraren ondoan isuri hunan. Bat-batean motorra lehertu eta ontziaren atzeko aldeak su hartu zinan. Gainera, nire lagunetako bat uretara erori zunan. Sekulako esperientzia izan dun, berriz errepikatzeko modukoa.*



1

1. Iquitos herrian, Yahua tribukoekin.
2. Pampacangalloko osasun zentroan.
3. Machu Pichuko Inken herrixka.



2



3

Gaudenzio Arregi Ventura (I)

Ez dut esango azpeitiarra genuela besterik. 1894ko abuztuaren 30ean jaio zen, kalea ez badakit ere. Azpeitian bertan kokortu zen, eta maristetan ikasi, eskolatik bota zuten arte –beraren lagun Pepito Alzururekin batera–, gaizki portatzen omen zelako. Batxilergo azterketa egin zuten, hala ere, Alzururen aitak bi mutikoei emandako eskolei esker. Batxilergo ikasketak 1911n bukatu eta soldadutza egin beharrik gabe libratu zen, ‘kuota abonua’ tarteko. Buenos Airesera joan zen orduan, anaiarenera, dirua egiteko lanean. Gaudenziok ez zuen, nonbait, anaiaren zori onik izan eta bueltan zen handik lasterrera, baina ez Azpeitian, Sevillan baizik –inori ezer esan gabe–, torero izatea zuelako amets. Hango Diputazioko agiritan ageri denez, bertako Bost Zauriak (Makarena) ospitaleko Espiritu Santua gelako 85. ohean zetzan 1914ko martxoaren 17an. Sukar-ametsetan dagoela, bertan ari den moja batek beste inork ez dakien hizkuntza batean hitz egiten du. Moja euskalduna gai-xoa nor ote den peskizan hasi, jakiten du, eta mutilaren gurasoei Azpeitira kasu egiten asmatzen du. Gurasoak Sevillara joan eta atzera herrira daramate Gaudenzio.

Sendatzen den orduko, etxeko erremente-rian lanera behartu, zigortu zuen bere aita Tomasek, aldi batean behintzat, egindako okerra purgatu arte... 1914an bertan eman zuen izena Leongo albaitaritza eskolan. Ikasle argia eta saiatua, inondik ere, hiru urtean egin zituen bost urtean egitekoak zituen ikasketak.

Ez dut esango 1918an Azpeitiko Udaleko Albaitari-ikuskatzaile izendatu zutela besterik. Hiltegiara zeramatzen ganadua aztertzen zuen, batetik, eta herriko baserrietako animaliak sendatzen.

Ez dut esango 1921ean ezkondu zela besterik, Lezoko Santu Kristoko basilikan. Kontsuelo Arrese-Igor Etxeberria hartu zuen emazte. Irurakoa zuen aita, Teodoro; Urresti-



|||||||||||miel a. elustondo|||

|||Gaudenziok bestelako etxe txalet bat jaso zuen aurreko etxearen pare-parean: Villa Consuelito

llakoa, ama, Maria Josefa. Azpeitian bertan jarri ziren bizitzen, arrabalean, zezen plazatik eta Urola gaineko hartzubitik bertara. Alaba bakarra izan zuten, Kontsuelo hura ere, Jose Ramon Seguesekin ezkonduko zena: Juan Mari, Rosa Mari eta Iñaki... gure garaiko lagunak. 1936ean, gerra aurretik, Gaudenziok bestelako etxe txalet bat jaso zuen aurreko etxearen pare-parean: Villa Consuelito izena jarri zioten, etxeko bi andrezkoen izenean.

Errepublikazalea

Garai hartako albaitari asko bezala, errepublika zalea zen Gaudenzio. Beharbada, Leonen izan zuen irakasle Felix Gordon Ordas-en eraginagatik. Beharbada, batera eta bestera bidaian ibilia zelako. Dena dela, ez zuen kargu politikorik, eta ez zen errepublikarren alderdiko militante ere. Nabarmena izan behar zuen

Gaudenziok albaitariak, elizak Azpeitian zuen indar handia kontuan hartuz, Gipuzkoa osoan bezala, non karlistak eta nazionalistak ziren nagusi eta, gutxiengo, berriz, errepublikarrak. (jarraitze-kotan).*



ikastaro eta akademien gida

ikasturte berrian aukera ugaria

**EKI LORE
YOGA GUNEA**



**Bila ezazu
zure barne oreka**

Urbitarte 5 Sanjuandegi / Tel: 943 81 52 63



DIART

- marrazketa eta pintura ikastaroak
- buztinean modelatzea

7 urtetik hasita

Eliz kalea 23 - Tel. 943 150 949

Centerpoint
academy

Ingelesko klaseak haur, gazte eta helduentzat (goiz eta arratsaldean)

- Cambridge, HEO, TOEFEL
- Enpresetarako ingelesa
- Helduentzat maila guztiak
- Eskolako ingelesa

ZATOZ!!!

Olazko Amaren Plaza
943 81 65 03



- Heldu nahiz gaztetxoentzako klaseak
- Jatorrizko irakasle lizentziatuak
- Klaseak akademian edota enpresetan
- Cambridge-ko azterketak prestatzeko klaseak (KET,PET,FCE,CAE, CPE...)



943 816 657

Enparantza Nagusia 9

zatoz matrikulatzera!



CONCORD



Santi Lazkano Kirolak

udazkena-negua 2009

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobeak
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



AEER EX5635ZG

- Intel Pentium T4200
- 4GB memoria
- 500GB disko gogorra.
- NVIDIA GeForce G105M
- DVD grabatzailea
- Webcam-a
- Windows Vista Home Premium Edition

520 euro
b.e.z. barne

